Erref. kodea: LAF-220-192 [99]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Ezezaguna: *Guéthary. Gure Erretorak XIIemendetik XVIIIe mendera arte*

# Guethary

## Gure Eretorak XIIe mendetik XVIIIe mendera artio

Jaun eretor Marot zenaren nahiaren arabera Guethariako eretoren hobiaren egitera goazinaz geroz, hitz bat gure herrian izan ditugun eretoretaz.

Lehengo eretorak ehortziak izaiten ziren Eliza-barnean, gehienik aldare aintzinean, herriko paperek dioten arabera. Bizkitartean bada apez baten hobia, elizako gapirio azpian. Eta Cornu Jaun Eretora 1856-tik 1860 artino, bakarrik ehortzia izan da hil-herrian, dorearen parean, aldareari buruz.

Dudarik gabe XIIe mendetik XVIIe menderaino Bidarteko eretorek egin dute gure Elizako zerbitzua: 1577an ikusten dira Baionan egin bilkura batzuetan, "Bidarteko eta Guethariako" eretoren izenak; 1633ko inguruetan da bakarrik Guetharya Bidartetik berexten eta herri gisa, beraz Parropia berri gisa agertzen.

Badugu XVIIe mendean eretor zen baten izena Bertrand de Jaureguy deitua 1660an, Larresoroko sortzez

Elizako gapirio azpian

Bazuen anaia bat, Hiriartean - eta iloba bat Pereirian. Hura ere ehortzia izan da Elizan. Bazuen bikario bat (eta orai!) Jean de Urbero.

XVII^e mendeko azken urtetan, ~~bertze~~ Guethariako bertze eretor batek paropiari utzi zuen etche bat luzaz herriko eretoren etchea izanen zena.

FSC
MIXTO
FSC® C001636